

## ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

## 5

## ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO

**GIPUZKOAKO ITSASERTZ ZERBITZU PROBINTZIALA**

*«Orio eta Aiako (Gipuzkoa) udalerrietan Oribarzar hondartzaren leheneratze» proiektuaren informazio publikoa (Erref.: 20-0227).*

Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Itsasertzaren eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak erreferentziazko lanaren kontratazioa gidatuko duten zehaztasunak onartu ditu. Kostaldetako, uztailaren 28ko, 22/1988 Legearen 45 artikuluan eta Kostaldetako Arautegia onartzen duen urriaren 10eko, 876/2014 Errege Dekretuaren 98 artikuluan xedatutakoaren arabera, Informazio Publikoan jartzen da aipatu proiektua hogei (20) egunetako epean honako iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Dokumentazioa ondorengo web helbidean kontsultatu ahal izango da: <https://www.miteco.gob.es/es/costas/participacion-publica/20-pro-20-0227.aspx>.

Epe berean azter daiteke espedientea, aurretiko hitzordu bidez, Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzu Probintzialaren bulegoetan, Donostiako Pio XII Plazan, 6 zk., 3. solairuan ordutegi baliodunean astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.

Alegazioak eta oharrak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako mekanismoen arabera aurkeztuko dira, Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzu Probintzialari zuzenduta, Donostiako Pio XII plazan 6. zk. 3. solairuan (identifikazio-kodea: EA0043359), iragarki honetan agertzen den erreferentzia aipatuz. Halaber, indarreko ziurtagiri edo NAN elektronikoak badituzu, Erregistro Orokorra erabil dezakezu helbide honetan: <https://rec.redsara.es/registro/action/are/acceso.do>.

Donostia, 2023ko otsailaren 16a.—José Luis Tejerina Hernando, Itsasertz Zerbitzu Probintzialeko burua. (1247)

**SERVICIO PROVINCIAL DE COSTAS DE GIPUZKOA**

*Información pública del proyecto «restauración playa de Oribarzar en los términos municipales de Orio y Aia (Gipuzkoa)» (Ref.: 20-0227).*

La Dirección General de la Costa y el Mar del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico ha aprobado las particularidades que regirán la contratación de la obra de referencia. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley 22/1988, de 28 de julio de Costas y en el artículo 98 del del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Costas, se somete a Información Pública el citado proyecto por un plazo de veinte (20) días a contar desde el siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La documentación podrá consultarse en la siguiente dirección web: <https://www.miteco.gob.es/es/costas/participacion-publica/20-pro-20-0227.aspx>.

En el mismo plazo puede ser examinado el expediente, mediante cita previa, en las oficinas del Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa, en la Plaza Pío XII, n.º 6, 3.ª planta de Donostia-San Sebastián en horario hábil de lunes a viernes de 09:00 a 14:00 horas.

Las alegaciones y observaciones se presentarán según los mecanismos establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, dirigidas al Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa, en la Plaza Pío XII, n.º 6, 3.ª planta de Donostia-San Sebastián (código de identificación: EA0043359), citando la referencia que aparece en este anuncio. En particular, si dispone de certificado o DNI electrónicos en vigor, puede hacer uso del Registro General en la dirección siguiente: <https://rec.redsara.es/registro/action/are/acceso.do>.

San Sebastián, a 16 de febrero de 2023.—El jefe del Servicio Provincial de Costas, José Luis Tejerina Hernando. (1247)